

# ESTEREOTIPOAK

Estereotipoetan errealitatearen pentsamendu simple eta mugatuak islatzen dira. Bertan, pertsona edo talde batekiko aurreiritziak dira nagusi, gehienetan, ondorio negatibo edo ikuspegi okerra izatera eramaten gaituzte. Ezer baino lehen hauek dira estereotipoen ezaugarriak:

- Orokorrak dira, talde bateko kide guztiei aplikatzeko joera dago.
- Zurrunak dira, erresistenteak, aldatzea zaila da.
- Ez da zehatza, ez dute benetako aniztasuna aipatzen.
- Eragin negatiboa, diskriminazio, aurreiritzi eta desberdintasunak indartzen dituzte.
- Enpatiarik gabekoak, estereotipoek zaildu dezakete pertsonak besteak ulertzeko duten gaitasuna.
- Sinplifikatuak, estereotipoek errealitatearen konplexutasuna murrizten dute
- Autoperturbazioa; pertsonen espektatiba negatiboak sortzen dizkiete, eta horrek estereotipoa indartzen du.

Estereotipoak nagusiki gizakiok kanpotik datorkigun informazioa bildu eta sailkatzeko dugun premiatik sortzen dira. Kategoriatan sailkatzen dugu dena horretarako joera naturala dugulako, ekintza hau informazioa prozesatzeko baliagarria izan daiteke baina gehiegizko sinplifikazio edo gauzak zentzurik gabe orokortzea ere ekar dezake. Bestalde, sare sozialek, hezkuntzak eta iragarkiek estereotipoak inposatzen dizkigute. Azkenik, sortzeko beste modu bat norberaren esperientzia pertsonala izan daiteke. Mota ezberdinetakoak daude;

- Arraza estereotipoak; Etnia edo giza arraza jakin batekin zerikusia dutenak, ezaugarri fisiko, mental edo moral espezifikoak ematen

zaizkionak.

- Genero estereotipoak: Sexu biologikoei edo sexu desberdinetako komunitateei rol, jokabide eta ezaugarri jakin batzuk esleitzen dizkietenak.
- Gizarte klase estereotipoak: Gizarte-klaseren batekin zerikusia dutenak, gizabanakoen multzo homogeen gisa ulertuta.
- Erlijio estereotipoak: Erlijio batean sinisten dutenei aplikatzen zaizkienak, askotan irizpide etnikoekin edo kulturekin batera.
- Estereotipo kulturalak: Nazionalitate edo jatorri kultural jakin batekin zerikusia dutenak.

Sarritan, estereotipoak aurreiritziekin nahastuak izaten ohi dira. Dena den, errealitatean bi desbertintasan dituzte. Batetik, estereotipoak ideia multzoak dira, bestetik, aurreiritziak pertsona konkretu jakin batzuei egokitzen zaien bitartean, estereotipoak pertsona-taldeei egokitzen zaizkie.

Aztertutako ikerketak:

Lehen ikerketa, Claudia Goldin eta Cecilia Rousek egindako ikerketa da. Bertan, orkestatuak audizioak modu itsuan, hau da, musikariek haien nortasuna ezkutatzeari, eta audizio normalak egitean kontratatzen dituzten pertsonak konparatzen dituzte. Estudioan, zera aurkitu zen: Entzuketa itsuetan, nabarmen handitzen zela emakumeak orkestatuak posizioetarako onartuak izateko aukera. Genero estereotipoek asko eragin dezakete kasu honetan emakumeen bizitzetan. Izan ere, erabaki profesionaletan galtzen atera daitezke.

Beste ikerketa batean, Virjiniako unibertsitateak 2016ean egindako ikerketa bat da, arraza estereotipoen ingurukoa. Argitaratutako lanean, osasun-profesional batzuek oker uste zutela paziente beltzek zuriek baino min gutxiago sentitzen

zutela aurkitu zuten. Gainera, paziente afroamerikarrek minarentzat tratamendu gutxiago jasotzen zuten. Arraza estereotipoek osasun arretan eragin dezakete.

Nire uste apalean gehien eragiten duten faktoreak sare sozialak eta norberaren familiak dira; Batetik sare sozialak, zorionez edo zoritxarrez gure bizitzako zati garrantzitsu bat bilakatu dira. Haien erabilera oker edo arduragabeak estereotipoak indartu ditzakete. Adibidez, plataformek, edertasunarekiko eredu idealizatuak erakutsi ohi dituzte: (emakumeentzat errealak ez diren estandarrak eta maskulinitate toxikoa erakusten dute hortaz, normala dena hori dela dirudi). Bestetik, familiaren heziketak eragin handia du batez ere haurrak garenean. Hain zuzen ere, gure gurasoak erreferente dira jokabide positibo eta balio egokiak irakatsi ez gero, gerora estereotipoen eragina txikiagoa izango da. Edo ahalik eta murriztuena izango da.

Askotan inkontzienteki sortzen dira eta kaltegabeak direla uste dugu, hala ere, arrisku esanguratsuak sortzen dituzte:

1. Diskriminazioa sustatzen dute: Estereotipoen ondorioz, politika eta praktika bidegabeak sortzen dira. Adibidez, jendeari eragiten diote lanean, hezkuntzan eta beste esparru batzuetan.
2. Desberdintasunari eusten diote: Botere-ezberdintasunak indartzen dituzte eta zenbait talderentzat aukerak mugatzen dituzte, desberdintasun sozialak betikotzea eraginez.
3. Kalte psikologikoak eragiten dituzte: estresa, antsietatea eta autoestimutxikia eragin dezakete. batez ere, estereotipo negatiboak dituzten pertsonen.
4. Gatazkak eragiten dituzte: taldeen arteko bereizketa eta antagonismoa elikatzen dute, eta horrek gatazkak ekar ditzake.
5. Tratu bidegabeak justifikatzen dituzte: batzuetan, estereotipoek talde

batzuekiko tratu txarrak eta zapalkuntza justifikatzeko erabiltzen dira.

6. Aurrerapen soziala blokeatzen dute: Pertsonak gizabanako gisa baloratzea eta tratatzea eragozten dute, aurrerapen soziala mugatuz.

Ondorioz, estereotipoak ezabatzea funtsezkoa da gizarte justu bat sortzeko, mundu berri horretan errespetuz jokatzeari gain, pertsona bakoitzak arrakasta aukera berdina izango ditu. Badakit helburu hau lortzea zaila dela baina aldaketa batzuk eginez lortu daitezkeela iruditzen zait. Horretarako hainbat aldaketa sustatu behar ditugu: Hezkuntzak gaia landu, aniztasunarekiko beldurra galdu, politika inklusiboak indartu eta gaiari buruzko elkarrizketen bidez lortu dezakegu. Azkenik, geure buruari estereotipoak zalantzan jarriz eta hau gainditzeko erronka eginez lortuko dugu!

[document \(hal.science\)](#)

[Estereotipos y clichés - Ruth Amossy, Anne Herschberg Pierrot - Google Libros](#)  
[22fernandez11.pdf \(ujaen.es\)](#)

[Estereotipos y prejuicios de género.: Factores determinantes en Salud Mental. - Dialnet](#)  
[\(unirioja.es\)](#)

[Redalyc.Los estereotipos como factor de socialización en el género](#)